

noaua

Xabier Aranburu,
aske

Asteburu honetan,
Santuenean jai

Amador Granados
Alkorta brontzezko
dominarekin
itzuliko da Riotik



Maria Salsamendi Luengo,
Parekidetasuneko udal teknikari berria

**“Berdintasun Plan berri bat
guztiontzat da garrantzitsua”**



**ONDO PASA
SANTU-ENEAKO
JAIETAN!**

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31



SAGARDOTEGIA



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



**HHI-EPA USURBIL
HELDUEN ESKOLA**

2016-17 MATRIKULAZIOA IREKITA

- GRADUKO IKASKETAK (D.B.H)
- INFORMATIKA IKASTAROAK
- EUSKARA (OINARRIZKOA)
- INGELESA MINTZA PRAKTIKA
- FRANTSESA

ARGIBIDEAK: 943-366608 info@epalarte.es



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Baxoalde 4 behe, ORIO

Albisteak iruditan

Asteburupasa Pirinioetan



Aurreko urteetan uztailekoa izan ohi da irudi hau. Oraingoan ordea, irailera atzeratu zuen Andatza M.K.T.-k Pirinioetara antolatu ohi duen asteburupasa. Jendetsua izan ohi

da txango hau, aurten ere bai. Monte Perdido eta Faja Racon igotzekoak zituzten. Irudi hau eta argazki bilduma osoa, andatzamendizale.info atarian ikus dezakezue. Web orrialde berean kontsulta

dezakezue baita, urte amaierara arte antolatu dituzten irteerak:

- Urriak 2: Heleta-Hortzaize.
- Azaroak 5: Toloño.
- Azaroak 24-26: Mendi Astea.

Laburrean

Lapurretak Aia eta Usurbilgo bi baserritan

Bi gizonezko atxilotu zituen Ertzaintzak irailaren 5ean Orion. Aia eta Usurbilgo bi baserritan lapurretak egin izana egozten zaie. Dirua, mugikorrak, bitxiak... berreskuratu ahal izan dituzte kaltetuek.

Urriaren 30ean, 1946an jaiotakoen bazkaria Antxetan

Izena aurrez eman beharko da Laurok liburu dendan, urriaren 23a baino lehen. Honatx Laurokeko telefono zenbakia: 943 36 34 48. Aurten 70 urte bete dituzte edo beteko dituzte herritarrok.

Katekesi taldeetan izena emateko garaia

Salbatore Parrokiako katekesi taldeetan izena emateko egunak hauek izango dira: Irailaren 20an eta 21ean 18:00etatik 19:30era Parrokiako bulegoetan. Gura-soak bertaratzea komeniko litzateke.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

“Aukera berdintasuna”, diskriminazioan sakontzeko

Ez dute erretiratu, ez dute azalpenik eman. Zalaparta handia sortu arren, biharamunean oraindik ikusi eta entzun zitekeen. Nazka, haserrea eta amorrua, sare sozialetan gehien errepikatu diren hitzak, hauteskunde kanpaina batean den eragile politikoe-tako batek zintzilikatu duen bideo baten harira.

“Euskara askatasunean” izenburua daraman bideoan, hainbat laguni zenbait gune publikoetan sartzea debekatzen zaiela ikusten da. Eta segidan, alderdi honetako lehendakariaren mezua. “Euskara ez jakiteagatik ez dizute sarrera inon debekatzen. Inon... leku batean izan ezik. Administrazioan. Bide gabeko egoera bat da eta konpondu nahi dugu. Si-

nisten dugulako aukera berdintasunak zerbait oso euskalduna ere, izan behar duela”. Alegia, oso euskalduna dela beretzat, euskara jakin ez, eta euskare- ren herri honetako adminis- trazio publikoko ateak zabal zabalik aurkitzea. Hala egongo ez balira bezala. Noiztik da ba euskaraz jakitea ezinbesteko, lanpostu publiko guztietan ari- tu ahal izateko?

Bideo horrek aukera berdintasuna defendatzen du, tranpa handi bat eginez; ez du esaten benetan, esan nahi duena. Gu- rean, administrazio publikoan aritzeko ezin dela euskara ja- kitea eskatu, are gutxiago, exi- jitu. Baina exijitzen al da ba? Anbulatorioan, epaitegietan, Jaurilaritzaren ordezkari- zako bulegoetan... Eguneroko kon- tua da hainbat lekutan, zuk zerbitzua euskaraz jaso nahi,

eta eskubide osoz dagokizun zerbitzu hori erdaraz irentsi behar izatea.

Euskara exijituko balitz, bi- deo hau zintzilikatu duen al- derdiko kide batek ezin izango zuen 2009an lehendakari- zara heldu eta agintean izan lau urtez. Ezingo zuen garai horre- tan, euskaraz ez zekien perso- na batek guztiona behar lukeen EITB zuzendu. Ezingo ziren onartu, hainbat gune publikoe- tan “euskara ikasten ari naiz” dioten txartelak. Are gutxiago, inork “Euskaraz ez dakit” esa- tea. Euskarak dagokion tokia izango balu, erdararen pare egongo balitz, administrazio publikoan, kalean, etxean... ofiziala litzateke. Zertzelada hauekin soilik ikus daiteke, zenbaterainoko aukera berdint- asuna defendatzen duten bi- deo honen egileek. Gaztelania

ezinbesteko hizkuntza bihur- tuko duen herria irudikatzen dute etorkizunerako, euskara garai batean bezala, eremu pribatuan “askatasunez” hitz egiteko. Ikaragarria.

Gertaera honetatik poz- garriena, desatsegina bada ere guztia, jendartearen erreakzioa izan da. Erabiltzai- le batek idatzitakoak eman dit atentzioa. Halako bideo eta hizkuntza eskubide urrake- ta gehiagorik ez onartzeko, guztiok eta indar gehiagor- jorratu behar genukeen bidea aipatzen du. Bideoaren egi- leei zuzenduz hala dio: “Ba nei motibatu in diazue... Ez nuen ohitura, baina hemen- dik aurrera administrazio pu- blikoak erreklamazio dotore bat jasoko du nire hizkuntz eskubidea urratzen duen bakoitzean!”.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Ilazki Gaintza | Maialen Unanue | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai

Lan uzteak EuskoTrenen

Irailaren 13tik 17ra eta hila- ren 19tik 24ra lan uzteak deitu ditu Eus- kotrenen Batzorde iraunkor- rarak tren alorrean gidaritza funtzioak dituzten Amara eta Arasoko lan-egoitzetako langileak egunotan. Iraila- ren 13tik 16ra eta 19tik 23ra 07:00-09:00 artean eta 18:00-20:00 artean. Irailaren 17an eta 24an, 10:00-12:00 artean, eta 18:00-20:00 artean.

“Lan-uzteen helburua lan-baldintzei eusteko tren gi- darien lan-talde finkoa handi- tzea da, eta Arasoko langileek lanera biltzeko garraio publi- koa eduki ahal izatea”, ohar bidez zabaldu dutenez.



Irailaren 13tik 17ra eta irailaren 19tik 24ra iragarri dituzte geldialdiak.

Indarrean da neguko ordutegia EuskoTrenek martxan du ne- guko ordutegi berria. Zerbitzu gehiago eskainiz gainera. Zu- maia-Donostia artean, “goize- ko eta arratsaldeko bidaiari gu- txiagoko orduetako zerbitzua zabaldu egingo da. Orain arte 60 minutuz behingo maiztasuna

eskaintzen zen, eta hemendik aurrera 30 minutuz behingo maiztasuna eskainiko da eten- gabe egun osoan”.

Ordutegia eta informazio ge- hiago:

- euskotren.eus
- 902 543 210
- @euskotrenEJGV

Gipuzkoa Zutik, Zinemaldirako prestatzen

Donostian ostiral honetan bertan estreinatuko duten Zinemaldiari begira, deialdi berri bat egin du Gipuzkoa Zutik mugimenduak, erraustegiaren eta eliteen aurkako mugimenduak.

Bideoz iragarri dute

“Jantzi maskarak, behar- ko dituzue eta”, iragarri dute. Bideo bat ere presta- tu dute. Bertan zenbait la- gun jantzi bereziak soinean jartzen ageri dira, “2016ko Zinemaldian estreinaldia” dioen mezu batekin.

Abuztuan langabeziak gorantz eta kontratazioak beherantz egin zuen

Uztailean izandako azken urteotako beharakada handienaren ostean, gorantz egin du berriz abuztuan, Usurbilgo langabezia tasak. Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleratutako azken datuen arabera, 285 langabetutik (uztaileko datua) 295era igaro ginen abuztuan. Hamar langabetu gehiago zenbatu ziren beraz, udalerrri honetan. Gizonezko nahiz emakumezkoen artean eta ia adin tar-te guztietan igo da langabetu kopurua.

Bada ordea, bere horretan mantentzen den errealitateak. Gorabeherak gorabehera, oraingoan ere 295 langabetutik 164 emakumezkoak ziren, 131 gizonezkoak.

Kontratazioari dagokionean, 240 gizonezkoren kontratuak erregistratu dira, 148 emaku-



Abuztuan, 295 ziren langabezia zirenak, uztailean 285. Kontratazioak behera egin du abuztuan: 538tik 388ra murriztu da erregistraturiko kontratu kopurua. Argazkia: Mikel Goñi.

meenak ziren. Ia denak, 388tik 377 aldi baterako hitzartuak, 223 zerbitzuen sektorean.

Langabeziak gorantz egin

duen artean, kontratazioak nabarmen egin du behera; 538tik 388ra murriztu da erregistraturiko kontratu kopurua abuztuan.

Esperientzia

Eskola, abiatzear

Irailaren 20an hasiko dituzte 55 urtetik gorako herritarrei zuzendutako eskolak. “Lan mundua utzi ostean, esperientziak landu, elkar-trukatu eta ezagutza berriak eurenenganatzeko proiektua da. Partaideen garapen pertsonala sustatzea du helburu, ikuspegi fisiko, psikiko eta sozial batetik. Bide bertsutik, taldeak herri-mailan eta gizartean eragiteko duen ahalmena ere lantzen da”, berri eman dute.

Ekainera arte, astearte arratsaldero bilduko dira bi orduz Artzabalen. “Gai-zerrenda oso zabala lantzen dute partaideek. Hau guztia oso modu ireki eta parte-hartzailean burutzen da, eta ez da inolaz ere aurretiazko esperientzia edo ezagutzarik izan beharrik”, ohartarazi dute. Izen ematea Gizarte Zerbitzuetan bideratu behar da (Nagusia 43 edo 943 377 110).

“Gazteok ere lehen mailako herritarrak izan nahi dugu”

Hauteskunde kanpaina betean gara. Oraingoz EHBildu izan da Usurbilen hitzorduak deitu dituen eragile bakarra. Gazte ekitaldia antolatu zuen larunbatean frontoian, Arnaldo Otegiaren parte hartzearekin.

“Etorkizun duin bat nahi dugu”

Euskal gazteak pairatzen duen errealitate gordina salatu zen ekitaldian zehar. Prestakuntza maila altua jaso arren, egungo gazteek baldintza ez duinetan lan egin behar du-

tela, atzerrira joan beharrean aurkitzen direla, langabezia... “Iruzur egin digute”, adierazi zuten. Eta eskari argi bat plazaratu. “Gazteok ere lehen mailako herritarrak izan nahi dugu. Orain eta etorkizun duin bat nahi dugu”.

Irailaren 25eko hauteskundeetatik osatu litekeen Jaur-larritza berriari ere gauza bera eskatu zioten. Gobernu duin bat nahi dute, “herritarron eta gazteen ordezkari izango dena, ez gutxiengo pribilegiatu batena”.



EHBilduk gazte ekitaldia antolatu zuen aurreko larunbatean Usurbilen. Ondoren, Arnaldo Otegi hartu zuen hitza.

Xabier Aranburu, aske

Astearte goizean aldizkari hau inprentara bidean zihola izan genuen azken orduko albistearen berri; 25 urteren ostean, eta duela 10 urte kalean behar zuen arren, Xabier Aranburu “Xomorro” preso aske utzi zutela. Izan ere, 25 urte espetxean bete berria dituen aginagarrari, orain artean kontuan hartu ez zitzaizkion hainbat erredentzio edo kondena murrizketak aintzat hartu dizkio epaileak.

Fiskalak ere ez du errekurritu, ez du helegiterik tartekatatu erabaki honen kontra, eta honenbestez, aske utzi dute aginagarra. Irteera gauzatze-ko beharrezko tramiteak bete bezain pronto zen espetxetik irteteko. Hasiera batean astelehenean, baina paperen tramitazioa tarteko, asteartera arte ez zuten aske utzi.

Igande gauean Usurbildik autobusez abiatu zen senide eta herritar talde bat Herrera de la Manchako espetxe atarian zain izan zen Xomorro atera arte, etxerako bidea batera egiteko. Beste herritar talde bat frontoian batzartu zen astelehen arratsaldean. Azken orduaren berri emateaz gain, aginagarrari elkartasuna adierazi eta Herreratik zetozen albisteei adi egoteko deia egin zuten. Aipatu moduan, astearte goizean utzi zuten aske.

25 urte sorterritik urrun

Aspaldi, duela 10 urte kalean behar zuen arren, abuztuan 25 urte bete zituen kartzelan Xabier Aranburu “Xomorro” aginagarrak. 1991ko abuztuaren 17an atxilotu zuten 28 urterekin. “Atxiloaldian tortura eta tratatu txarrak jasan zituen baina inoiz ez ziren ikertuak izan”, Usurbilen Nahi Ditugu taldetik aditzera emana dute-



Herrera de la Manchara hurbildu ziren herritarrak bi egunez egon ziren bere zain.

25 URTEZ PRESO

“Duela 10 urte kalean behar zuen arren, Xabier Aranburu “Xomorro” presoasteartean utzi zuten aske”

nez. Gerora, “bi bider jipoitua izan zen (1992an eta 1993an) kartzetako lekualdaketa. Salaketa haiek ere artxibatu eta ez zituzten ondorio judizialik izan”. Geroztik, gutxieneko eskubideak aldarrikatzeko ere gose greba, planto eta hamaika protestaldi egin behar izan ditu aginagarrak. “Ondorioz, parte ugari bildu eta bere kondena lu-

zatu egin diote”, Usurbilen Nahi Ditugu taldearen esanetan.

Iaz, beste bi urtez luzatu zioten espetxealdia

Egun 53 urte ditu. Tarte honetan, lau espetxe ezagutu ditu; Carabanchel, Alcalá, Valdemoro eta Herrera de la Mancha. Herreran eman ditu urte gehienak; 2017ko martxorako finkatua zuen espetxetik irteteko data. Baina aipatu moduan, lehenago behar zuen kalean. Lege arrunta aplikatu baliote, baldintzapeko askatasunean izateko eskubidea zuen duela 10 urte. “Gerora ere atzeratu diote bere askatasuna, zehazki, 2015eko martxorako irteera

data baitzuen, baina legean egindako moldaketek beste bi urtez luzatu zioten espetxealdia”, Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik adierazia zigutenez.

Ikasi edota eskulanak egiteko etengabe izan ditu trabak. Halere, bere alderdi sortzailea garatu ahal izan du, bereziki egurra zizelkatzen edo bertso eta poemak idazten. Ezagunak ditugu Aginaga eta Usurbilgo jaientarako idatzi izan dituen bertsoak. “Bere bertso eta poemekin liburuxka bat argitaratu zen 2007an eta Ateramiñeko sailan ere bere lanak argitaratu izan dira”, Usurbilen Nahi Ditugu elkartetik gogorarazi digunez.

Jende ugari batu zen asteleheneko batzarrean

Duela bi urte, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak hartutako erabakien ildotik, epaitegietan beren herritik gertuen dagoen espetxera eramana izateko eskaera egin zuen 2014ko ekainean “baina helegite guztiak atzera bota ditu Audientzia Nazionalak”. Azken egunotara arte, 2017ko martxorako jarria zioten irteera data aginagarrari.



Egoeraren berri emateko, astelehenean batzar berezia egin zen frontoian.

“1936koa estatu kolpe hutsa izan zen”

Larunbatean 80 urte bete-ko dira tropa frankistak Usurbilen sartu zirenetik. Urtemuga honen harira zenbait ekitaldi antolatu ditu egunotarako Aitzaga Elkar-teak; hitzaldia, Txaldataxurreko lubakietara irteera eta oroitzapen ekitaldia hain zuzen. “Etor dadila jendea”, luzatu du gonbita Joxea Muguruzak. Lasarte-Oriako Islada Ezkutatuak, oroimen historikoa berreskuratzeko lanean diharduen taldeko kideak hitzaldia eskainiko du ostegunean Sutegin, Aranzadi elkarteko kide Pako Etxeberria eta Lourdes Errazti-rekin batera.

1936ko irailean Zubieta gainean, Txaldataxurren jazo-takoari buruz jardungo du. Gerra gisa definitzen da garai hartako sarraskia, baina Muguruzak dioenez, “gertatu zena estatu kolpe hutsa izan zen. Gipuzkoan hori oso garbi ikusten da, zeren urte hartako uztailaren 18tik aurrera ez da ikusten gerra adierazpen bat. Ejertzito bakarra zen, batzuk



Pako Etxeberria “Memoria eta aztarnak” hitzaldian hartuko du parte. Ostegun honetan, Sutegin. Argazkia: Anboto.

AITZAGA ELKARTEA

Ostegun honetan hitzaldia Sutegin eta larunbatean Txaldataxurrera irteera antolatu dute

legaltasunaren aurka altxatu ziren eta beste batzuk legaltasuna defendatu zuten”. Eta nola gainera. Altxatu zirenek ere onartu behar izan zuten, zer nolako erresistentzia aurkitu zuten zonalde honetan. “Oriako bailaratik aurrera egi-

tea, oso geldoa eta gogorra izan zitzaie la zioten”, Islada Ezkutatuak taldeko kidearen esanetan.

Bertakoek ahal zuten moduan aurre egin behar izan zieten tropa faxistei. “Ikusten da argi eta garbi ze motatako armamentua zuten batzuk eta besteek. Hemengoek bala zorro zaharrak eta pistolak besterik ez zituzten. Zetozenek armamentu berria eta kanoia, hemen ez zeudenak”, azaldu digu Muguruzak.

Armamentuan batzuen eta besteen artean alde nabaria egon arren, harrigarria izan omen zen, bertakoek nola aurre egin zieten Francoren tropei. “Harrigarria herriko jendeak nola aurre egin zieten. Askatasuna eta eskubideak oso gogor defendatu zituzten”, oroitzen du.

Jende mordoa borrokan

Erresistentzia handiko gunea izan zen inguru hau 1936an. Larrauldik hasi eta Mendizorrotzeraino luzatzen omen zen. Jende mordoa aritu zen borrokan.

Pentsa, hemengo erresistentzia lanak zer nolako garrantzia izan zuen. “Fronte hau izan zen bizkarrezurra. Hau piktura joan zenean, errepublikarrek eta nazionalistek fronte hori utzi zutenean, Gipuzkoa galdu zen”, nabarmendu digute Islada Ezkutatuak taldetik.

Aztarnak gertutik ezagutzeko aukera

Osteguneko hitzaldiaren ostean, borroka latz haiek utzitako aztarnak bisitatzeko aukera izango da larunbatean, Zubieta gainean, Txaldataxurrera egingo den bisita gidatuan. Txaldataxurrera egingo den irteeran, “errepublikarren lubakiak ikusiko ditugu”. Baita agertu ziren hezur batzuen kokagunea.

Taldea egiten ari den lan itzela ere plazaratzeko baliatuko dute irteera. Borrokaldi latz haietako operazio gunea bertatik ezagutzeko aukera egongo da, azalpenekin.

Halako ekimenekin, hamar-kada luzez egon den desinfor-



Larunbatean, 9:00etan abiatuko dira Askatasuna plazatik Txaldataxurrera.

mazioari aurre egin nahi diote Islada Ezkutatuak taldetik. “40 urteetan desinformazio hutseko garaia izan da. Halako taldean sartzean ikusten da

beste errealitate mota bat, ez du inongo harremanik kontatzen dizutenarekin, liburuetan agertzen den informazioarekin”, azaldu digu Joxak.

Hitzorduak

Irailak 15, osteguna

■ 19:00 “Memoria eta aztarnak” hitzaldia Sutegin.

-Pako Etxeberria (antropologo eta forentsea, eta Aranzadi elkarteko kidea).

-Lourdes Errazti (arkeologo eta antropologoa, eta Aranzadi elkarteko kidea).

- Joxea Muguruza (Islada Ezkutatuak Elkarteko kidea, besteak beste, Txaldataxur lubakiaren memoria berreskuratzen ari den taldea).

Irailak 17, larunbata

■ 09:00 Txaldataxurreko lubakietara irteera Askatasuna plazatik abiatuta.

■ 13:00 Zigortu eta gudarien aldeko “oroitzapen ekitaldia” Askatasuna plazan. Antolatzailea: Aitzaga Elkar-tea.

Gurasoak euskalduntzeko ikastaroa

Familia barruko transmisioan eragiteko ikastaro berri bat antolatu du Etumeta AEK euskaltegiak, hasi berri dugun ikasturte honi begira. Gurasoentzako euskalduntze saioak.

“Lehentasuna haur txikiak dituzten gurasoei eman nahi zaie”, berri eman digute euskaltegitik. Talde bakarra osatu nahi lukete. 100 orduko ikastaroa izango da, astean bi egunez, bi orduko saioak. Datuak zehazteke dituzten arren, azaro inguruan hasi eta ekaina amaierara arte luzatzea aurreikusten da. Udarregi Ikastola egin asmo dute ikastaroa. “Prezio berezia izango luke”, Usurbilgo Udalak emandako



Euskaltegitik aditzera eman dutenez, 100 orduko ikastaroa izango da. Astean bi egun.

laguntzari esker. Egitasmoa hain zuzen, Etumeta AEK euskaltegia, Udarregi Ikastola eta Udalaren arteko elkarlanean atara da aurrera.

Proba moduan abiatu nahi dute ikastaroa. “Lasartetik dator ideia. Oso ondo funtzionatu zuen duela hiru urte. Ikusten da gainontzean iristen ez ginen

guraso kopuru garrantzitsu batengana heltzen ginela. Horrek balio badezake famili barruan eragiteko, primeran”, Etumeta AEK euskaltegitik adierazi digutenez.

Bikoteen gehiengoa mistoa da Eskuarteetan dituzten datuen arabera, egun bikoteen gehiengoa mistoa da. Hau da, batek euskaraz daki, besteak ez. “Horrek ekartzen duena da, familia erdi euskaldunak izanik ere, gurasoen arteko komunikazioa erdaraz izatea. Haurrek ere etxean erdaraz entzuten dute”, ohartarazi dute euskaltegitik. Errealitate hau iraultzen ahalegindu nahi dute, egitasmo honen bidez.

Matrikulatzeko epea zabalik dago

Ikastaro honetan eta AEK-ren gainerako eskaintzan matrikulatzeko epea zabalik dago jada. Berrikuntza honez gain, 2016-17 ikasturteari begira, euskalduntzeko klaseak eskainiko ditu Etumeta AEK euskaltegiak, astelehenetik ostegunera goiz eta arratsaldean, urriaren 3an hasi eta ekainera arte.



Urtean zehar jarduerak ugari antolatzen dira. Artxiboko irudian, Etumeta AEK euskaltegian eginiko ukendu tailerra.

Goizez edo arratsaldean

Batetik, goizeko ikastaroak; astero bina ordu eta erdiko lau klase izaten dira, astean 10 ordu beraz. Arratsaldeko ikastaroak asteko 8 orduko iraupena dute, saio bakoitzak

2 ordukoa. Euskaltegiara joan ezin duenak, autoikaskuntzaren bidea hauta dezake. Tutore baten laguntzaz euskara norbere kontutik ikasi dezake. Astero mintza saio bat izango du. Ikastaro hau bera, online

bidez ere egin daiteke AEK-n.

Korrikaren 20. edizioa

Azken ohar bat; ez ahaztu bi urtean behin ospatzen den Korrika, hogeigarren edizioa, datorren udaberrian ospatuko

dela. Hitzordu honi begira, “beti osatzen da herri batzordea. Animatu dadila jendea parte hartzera”, luzatu dute gonbita Etumeta AEK euskaltegitik.

Matrikulazioa zabalik

Irailaren 30era arte:

■ Astelehenetik ostiralera: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00. Nagusia, 43 607 609 379. usurbil@aek.eus www.aek.eus muntteri.blogspot.com.es

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Artzi
Patriketa
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

æk

euskara praktikoa

%100 SENTIKOR



Eman izena

Garena ikasteko
para entenderlos
pour se comprendre



æk

607 609 379

usurbil@aek.org

www.munteri.blogspot.com.es



Eskolak



Mintza
praktika



Barnetegiak



On-line



Autolikaskuntza



Normalizazio
planak



Titulua
homologatua



ETUMETA AEK

Kale Nagusia,
45 behea
20170 USURBIL

Usurbil

Berdintasun Plan berria helburu

Denok dugu zer esana, denoi eragiten baitigu gai honek. Usurbilgo Udalak herritarrak bidelagun izango dituen parte hartze prozesu berri bat burutu nahi du, azken urteotan indarrean izan den I. Berdintasun Plana (2010-14) ebaluatu eta datozen urteotarako zutabeak finkatuko dituen bigarrena diseinatzeke.

Emakundek diruz lagundu eta Elhuyarrekin elkarlanean egingo den lanketaren baitan, ekarpenak jasotzeko bi bilera deitu dituzte asteotarako herritarrekin. Parte hartuko dutenen artean izango dira, sail honetako zinegotzi Josune Estella Arranz, eta parekidetasuneko udal teknikari berria, Maria Salsamendi Luengo. Biek eskaini dizkigute lerrootan, argibide gehiago.

Bigarren plana, lehenengotik abiatuko da noski?

Josune Estella Arranz: Jarraipen bat da.

Maria Salsamendi Luengo: Lehenengo Berdintasun Plan bat diseinatzen denean gehienetan plan orokorrago bat izaten da. Gero lantzen zoazen heinean, zehazten, fintzen zoaz. Bigarren berdintasun plan batek jasotzen dituen helburuak zehatzagoak eta errealitatera eta momentura egokituagoak izaten dira. Usurbilen lehenengoa ebaluatu, eta hortik abiatuta, bigarrena osatu nahi da.

Parte hartze prozesu baten bidez, bi lanok batera egingo dira?

M.S.L.: Bai. Lan ildo desberdinak daude; bat udal barrura begira eta bestea, herritarrek zer pentsatzen duten jaso nahi da. Asko interesatzen zaigu hori jakitea. Parte hartzea bermatzeko bide desberdinak planteatzen dira. Galdetegi batzuk



Elhuyarrekin elkarlanean ari dira, eta ekarpenak jasotzeko bi bilera deitu dituzte herritarrekin. Lehen, irailaren 21ean 18:30ean, Potxoenean.

MARIA SALSAMENDI

“Lan ildo desberdinak daude; bat udal barrura begira eta bestea, herritarrek zer pentsatzen duten jaso nahi da. Asko interesatzen zaigu hori jakitea. Parte hartzea bermatzeko bide desberdinak planteatzen dira”

osatzeko aukera izan zuten herritarrek abuztura arte. Bigarren une batean gaude orain.

Herritarrei zuzenduriko bilera irekiak antolatu ditugu.

Galdetegi horietako emaitzak jaso dituzue? Zer diote herritarrek?

M.S.L.: Aipatzeko gutxi dugu une honetan. Lanketa hau egiteko Elhuyarreko lan talde bat dago. Beraiek datu horien guztien ustiaketa egiten ari dira.

Zer nolako dinamika izango dute herritarrekin egin nahi dituzuen saiook?

M.S.L.: Egunotan aritu gara Elhuyarrekoekin saio hauei forma ematen. Bi saio izango

dira. Lehenengo saioan, orain arte jasotako informazio kuantitatibo horretatik, zer ikusi duten azaleratuko dute. Gero prozesuaren nondiko norakoak azalduko dituzte. Horrez gain, eta garrantzitsua dena, bertaraten denak ze ikuspegi duen azaldu ahaliko du. Guk hori behar dugu une honetan.

Egindako horretan zer da nabarmenduko zenuketena?

J.E.A.: Mugimendu feministaren berrakibatzea oso garrantzitsua izan da. Irailetik aurrera berriro martxan jarriko da talde feminista. Genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurkako protokoloa sinatu da. Harreman zuzena dugu hezkuntza zentroekin, berdintasuna lantzeko. Formakuntza jaso dugu politikariok, udal langileekin ere saioak martxan jartzeko asmoa dugu.

M.S.L.: Sexu aholkularitza gunea martxan jarri da, hezkidetza programa hezkuntza baliabideekin, indarkeriaren inguruko gaia ere landu da, sinatu da protokoloa, ahalduntze eskolak martxan jarri dira...

J.E.A.: Arrakasta itzela izan dute. Gero eta jende gehiago parte hartzen ari da. Eskolak finkatuta daude, baina gehiago martxan jartzeko asmoa dugu.

Berdintasun politikak txertatzeko tresna

N. Gaiak denok ukitzen gaitu eta denok izango dugu zer esana. Proposamenon gainean diseinatuko da plan berria?

Maria Salsamendi Luengo: Berdintasun plan bat, guztiontzat da garrantzitsua. Zalantzan dagoena hurbildu dadila, guztion iritzia behar baititugu, guztion artean erabaki behar ditugu hurrengo urteotarako lehentasunak.

Plana bera diseinatzeke dagoen

arren, badiu ezaugarri batzuk finkatuak? Epea esaterako...

M.S.L.: Lau urterako izango da, 2017-2020 urte arterako, nahiz luzatu daitekeen. Bigarren batek beti sakontasun bat ematen du. Helburuak finkatzerako garaian lanketa bat egingo dago. Berdintasun plan bat berdintasun politikak txertatzeko tresna bat da. Usurbilgo herrian pauso asko eman dira tresna hori hor izanda. Aurrera segi-

ko dugu, ondo egindakoak mantenduz eta gehitzen joan behar diren beste batzuk ere eransten.

Lehen planak emandakoaren ikuspegitik, tresna eraginkor edo erabilgarritzat definitu dezakezue?

Josune Estella Arranz: Pozik gaude eginiko lanarekin. Gauzak egiteke geratzen dira. Baina gauza asko egin dira, lagungarria izan da.

“Plazara ateratzen jarraitu behar badugu, horrek adierazten du lanketa handia dugula egiteke”



Maria Salsamendi maiatza bukaeran hasi zen Usurbilgo udaletxean lanean. “Beste teknikari bat zegoen aurretik, herrian lan handia egin duena. Oraindik egokitzen, ikusten eta ikasten ari naiz”.

Udako jaietan ikusi ditugun mobilizazioak inoizko jendetsuenak izan dira. Pixkanaka plazaratzen doa emakumeen aurkako eraso-
soen salaketa?

Josune Estella Arranz: Uda honetan ikusi dugun aktibazioarekin, jendea mugitu da protestetan. Itxaropena dut jende gehiago aktibatzea eta konturatzeari benetan oso gai garrantzitsua dela, emakume asko arriskuan baitaude. Lanketa handia egin behar dugu.

Berdintasun Planak salaketez haratago, baliabideak eskaintzen ditu, parekidetasunerantz bidea jorratzeko. Bide horretan gara edo bide horretara gerturatzaren ari gara zuen ustez?

Maria Salsamendi Luengo: Batzuk bidean gaudela argi dago. Bidean egoteak ordea, ez du esan nahi lana eginga dagoenik. Azkenean bidean zaudenean batzuetan kontzienteago ere izaten zara zenbat lantzeko dugun. Ibilbidea egiteke dago

SALAKETA UGARI UDAN

“Itxaropena dut jende gehiago aktibatzea eta konturatzeari benetan oso gai garrantzitsua dela, emakume asko arriskuan baitaude. Lanketa handia egin behar dugu”

oraindik. Gauza asko aldatu dira; berria da akaso batzuentzat, zer nolako mobilizazio jendetsuak egin diren udako jaietan. Baina plazara ateratzen jarraitu behar badugu, horrek adierazten du, lanketa handia dugula egiteke.

Denok eragin dezakegu.

M.S.L.: Noski. Bakoitzak ahal duen neurrian, bere eremutik. Lanean segiko dugu.

Plan berriak ere eremu ezberdinetan eragin nahiko luke?

M.S.L.: Eremu nagusi batzuk

beti daude presente. Zeharkakotasuna, indarkeria, emakumeen ahalduntzea eta erantzukidetasunarena, horiek dira beti Berdintasun Plan batek jorratzen dituen lan ildo nagusiak. Gero ikusiko da nola joango garen zehazten.

Datozen partaidetzazko saioei begira. Zer esan gai honek berarekin zer ikusirik ez duela pentsa dezakeenari?

M.S.L.: Guztiontzat da garrantzitsua. Herri eta jendarte parekide batean bizitzea denontzako da onuragarria. Denon onurarako bada, nola ez dugu denok zerbait esateko izango! Jendea hurbiltzera gonbidatuko nuke noski. Ahalik eta ekarpen gehiago, ahalik eta errealago, sentsibiltate asko jaso daitezke. Orduan eta aberatsagoa izango da.

J.E.A.: Denon iritziak dira interesgarriak eta beharrezkoak. Halako gai bat taldean lantzean etekin handia ateratzen da.

“Gauza asko egin dira esparru honetan”

NOAUA! Udal teknikari berria zaitugu Usurbilen.

Maria Salsamendi Luengo: Maiatza bukaeran hasi nintzen. Beste teknikari bat zegoen aurretik, herrian lan handia egin duena. Oraindik egokitzen, ikusten eta ikasten ari naiz. Pozgarria da, herri honetan gauza asko egin direla ikustea.

Ze inpresio duzu herri honetaz?

M. S. L.: Herri txikia da Usurbil. Halere gauza asko egin dira esparru honetan. Horrek poztasun handia ematen du eta hortik jarraitu nahi dugu. Berria naizen honetan, galdetu eta galdetu hortxe gabiltza. Oso gustura, herrian egin zaidan harrera kontuan izanda. Ahalik eta ekarpen gehien egiten saiatuko gara.

Epe motzera, baduzue beste-lako egitasmorik?

M. S. L.: Urriaren 15ean larunbata, 3. Usurbil Herri Anitza jaialdia ospatuko da. Prestatzen ari gara. Ahalduntze ikastaroak martxan ditugu, Sexu Aholkularitza Gunea baita...

II. Berdintasun Plana diseinatzeko hitzorduak

Irailak 21, asteazkena

■ 18:30 Potxoenean.

Urriak 13, osteguna

■ 18:30 Potxoenean.

Informazio gehiagorako:

■ Teknikaria: Maria Salsamendi Luengo.

■ parekidetasuna@usurbil.eus

■ 943 377 110

Bizipoza elkarbanatzeko jaialdia, ate joka

Zatozte irailaren 25ean Usurbila, bizipoza nagusituko da eta herri eder honetan, hortxe Porrotxen eta Bizipozaren Jaia antolatzen ari diren gainerako lagun guztien gonbita. Iraileko azken igandea, jaialdi erraldi baten erdigunea izango da udalerrri hau. Euskara, auzolana, elkartasuna eta bizipoza sustatuko dituen ekimen koloretsu eta alaia ospatuko da Usurbilen.

Elkarlanean bideratzen ari dira antolaketa lanak. Bizipoza Elkarateak deitu du jaialdia. Behar bereziak dituzten haurren eta familien bizi baldintzak hobetzeko lanean diharduten Euskal Herriko 30 elkarte biltzen ditu. Bilgune guztietako ordezkariak Usurbilen izango dira, jaialdian aktiboki parte hartuko dute, “beraien informazioa zabalduz, eguneko ekimenetan parte hartuz eta bizipoza elkarbanatuz denon artean”. Hauei guztiei, Usurbilgo hainbat herri eragile eta talde batu zaizkie antolaketa lanetara. Eguneko egitaraua diseinatu eta egin beharko diren lanetan lagunduko dute.

Auzolanean

“Eskertu nahi genieke Udalari babes eta eragile guztiei, egunean bertan bolondres lanetan arituko diren lagun guztiei, eta



Behar bereziak dituzten haurren eta familien bizi baldintzak hobetzeko lanean diharduten Euskal Herriko 30 talde batu dira Bizipoza elkartearen. Aurtan, Usurbilen ospatuko da Bizipoza elkartearen egun handia.

BOLONDRES SAREA

Ekimen honen helburuetako bat da elkartasuna sustatzea eta “gizartean bizipoza nagusitzea”

nola ez, Bizipozako elkartei. Ezinbestekoa da guztion arteko elkarlan hau, bestela ezin litzateke aurrera atera egun hau”, zioten antolatzaileek aurreko astean Potxoenean egin zuten aurkezpenean.

Elkarateak lagundu, bolondres sarea osatu

Egitarrako nondik norakoak aurreratzeaz gain, Bizipoza Elkartearen helburuak azaldu zituzten. Bilgune honetako kide diren 30 elkartei “proiektu eta egitura egonkor batekin erantzuten” ahalegintzen dira. Bizipozakoen helburuetako bat hain zuzen, elkarrean lanketa eta balioak plazaratzea da eta dituzten beharrei ahal den neurrian laguntzea. Gainera, “gizartean euskaraz ariko diren bolondres sare bat martxan

jartzea”, hortxe Bizipozakoen beste helburuetako bat, “elkartasuna sustatu eta gizartean bizipoza nagusitzea helburu izango duena”.

Usurbilen ospatuko da irailaren 25ean

Hitz gutxitan, bizipoza, elkartasuna, auzolana eta euskara sustatu nahi dituzte eta horretarako hainbat ekimen antolatzen dituzte urtean zehar; tartean, oraingoan irailaren 25ean Usurbilen ospatuko den elkartasun jaia. Zehaztasun gehiago, datorren astekarian.

Irailak 25 igandea, frontoian eta Dema plazan

- 10:00 Elkartearen topaketa.
- 11:00 Piko-piko jolasa Irrien Lagunekin: Elkarteekin elkarrekin jolastuz.
- 12:15 Agurra elkarte, babesle edota laguntzaileei.
- 12:30 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Amalur” ikuskizuna (Jakoba Errekondoren laguntzaz sortutako ikuskizuna).

- 13:30 Bazkari herrikoia As-katasuna plazan.
- 15:30 “Inklusioaz formatu txikian” antzerkia, Sutegin (Zeinu bidezko itzulpena izango du), 12 urtetik gorakoentzat.
- 15:30 Jalgunekin lagunak frontoian, jolastu eta dantza egiteko.
- 16:30 Ane eta Piratak Bizipozako elkarteekin parrandan.

- 17:30 Txokolatada.
- 18:00 Jaiaren amaiera.

- Egunean zehar, musikiariak, buruhandi eta erraldiak, elkartearen tailerrak... frontoian.

Mikel Laboa plazan (10:00-17:00): Irrien Lagunen puzgarriak, tailerrak (Real Sociedad Fun-

dazioa eta Usurbilgo eragileen eskutik).

Sarrerak:

Norbanakoen sarrera: 5 euro.
Familia sarrera: 10 euro.
Irrien Lagunak Klubeko fami-
liek doan.
Bazkaritarako txartelak sarre-
ran salgai, egunean bertan; 5
euro.



URKULLU » LEHENDAKARI

Zurekin eta nahi duten herritar guztiekin batera
Euskadi eraikitzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu



ERAIKI EUSKADI

ZUREA BOZKATU



Joseba
Olatz
Kerman
Garbiñe
Iñaki
Maria
Aitor
Carmen
Josu
Montse
Xanti
Josune

Aranitza
Garikoitz
Irene
Felix
Leire
Luke
Eva
Ion
Ester
Jon

Bete-betean da kanpaina

Irailaren 25eko hauteskundeetarako astebete eskas gelditzen den honetan, alderdi politikoak kanpaina sartuta dabilta buru belarri.

NOAUA!n, ohi bezala, arreta berezia ipiniko diegu hauteskunde hauei. Astekari honetan, lehendakaritzara aurkeztu diren zerrenda guztiak batu ditugu. Gipuzkoako barrutia bozkatu behar denez, zerrenda horiek dira jaso ditugunak.

Datorren astean, aldiz, alderdi nagusien hauteskunde programen berri emango dugu. Eta irailaren 25ean, emaitzen berri emango dugu noaueus orrian eta gure sare sozialetan.



Datorren asteko NOAUA!n, alderdien hauteskunde programen berri emango dugu.

Zortzi hautes-mahai ipiniko dira

Azken hauteskundeetan bezala, zortzi izango dira bozka emateko ahalbidetuko diren mahaiak. Zubietan, Lanbide Eskolan izango dute bozka emateko aukera. Santuenean, Auzo Elkartean. Aginagan, Herri Eskolan. Kalezarren ere berdin, Haur Eskolan. Kaxkoko boto emaileek, Udaregi ikastolara jo beharko dute irailaren 25ean bozka ematera.

IRAILAK 25 IGANDEA, HAUTES-MAHAIK

Lekua - Helbidea	Barrutia	Atala	Mahaia	Letrak
Udaregi Ikastola. Gernika ibilbidea, 11	1	1	A	A-I
Udaregi Ikastola. Gernika ibilbidea, 11	1	1	B	J-Z
Auzo Elkartea. Santuenea auzoa, 12	1	2	A	A-Z
Aginaga Herri Eskola. Erriberako kalea, 7	1	2	B	A-Z
Haur Eskola. Kalezar auzoa	1	3	A	A-K
Haur Eskola. Kalezar auzoa	1	3	B	L-Z
Lanbide Eskola. Zubietan auzoa, 9	1	3	C	A-Z
Udaregi Ikastola. Gernika ibilbidea, 11	1	4	U	A-Z

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, atzera begira

2012

EH Bildu	1.759
EAJ-PNV	799
PSE-EE PSOE	313
PP	94
Ezker Anitza	53
EB-Berdeak	36
Abstentzioa	1.516

2009

EAJ-PNV	895
D3M *	761
PSE-EE PSOE	477
ARALAR	373
EA	132
PP	126
EB-IU	82
Abstentzioa	1.748

2005

EAJ-PNV/ EA	1.282
EHAK	1.087
PSE-EE PSOE	378
ARALAR	206
PP	180
EB-IU	113
Abstentzioa	1.376

2001

EAJ-PNV/ EA	1.642
EH	1.109
PSE-EE PSOE	382
PP	320
EB-IU	101
Abstentzioa	877

* D3M legeaz kanpo utzi zuen Alderdien Legeak.

Hamaika zerrenda, bozka bakarra

EAJ-PNV

01.- Joseba Egibar Artola
02.- Bakartxo Tejeria Otermin
03.- Arantxa Tapia Otaegi
04.- Kerman Orbegozo Uribe
05.- Irune Berasaluze Lazkano
06.- Iñaki Agirre Arizmendi
07.- Garbiñe Mendizabal Mendizabal
08.- Luke Uribe-Etxebarria Apalategi
09.- Aitor Urrutia Oianguren
10.- Maialen Gurrutxaga Uranga
11.- Eva Juez Garmendia
12.- Felix Urkola Iriarte
13.- Leire Artola Ugalde
14.- Carmen Solorzano Sanchez
15.- Markel Olano Arrese
16.- Nerea Aldai Garate
17.- Josu Mendicutte Rodriguez
18.- Miren Josune Gomez Sarasola
19.- Mikel Iturbe Otaegi
20.- Olatz Peon Ormazabal
21.- Garikoitz Mendizabal Etxeberria
22.- Ane Beitia Arriola
23.- Ion Gamba Ibarzabal
24.- Maria Ubarretxena Cid
25.- Igor Oyarbide Zubillaga

EH Bildu

01.- Maddalen Iriarte Okiñena
02.- Pello Urizar Karetxe
03.- Rebeka Uberta Aranceta
04.- Unai Urruzuno Urresti
05.- Larraitz Ugarte Zubizarreta
06.- Nerea Kortajarena Ibañez
07.- Maider Otamendi Tolosa
08.- Oihana Etxebarrieta Legrand
09.- Ander Rodriguez Lejarza
10.- Aitzol Cajaraville Garmendia
11.- Pedro Iturbe Gonzalez De Audicana
12.- Maria Angeles Esnaola Uriguen
13.- Fernando Vaquerizo Gomez
14.- Baleren Bakaikoa Azurmendi
15.- Fetata Ibrahim Suelim
16.- Unai Asurmendi Etxarte
17.- Marina Bidasoro Arocena
18.- Naiara Carvajal Larrañaga
19.- Igor Ortega Sunsundegi
20.- Igone Mariezkurrena Fernandez
21.- Mikel Urdangarin Irastorza
22.- Jone Muguerza Egaña
23.- Xabier Irazusta Olea
24.- Elena Beloki Resa
25.- Xabier Isasi Balanzategi

PSE-EE (PSOE)

01.- Susana Corcuera Leunda
02.- Eneko Andueza Lorenzo
03.- Rafaela Romero Pozo
04.- Miren Gallastegui Oyarzabal
05.- Patxi Elola Azpeitia
06.- Arkaitz Millan Echezarreta
07.- Azahara Dominguez Urtizberea
08.- Isaac Palencia Caballero
09.- Patricia Borinaga Albeniz
10.- Miguel Maestro Insausti
11.- Maria Lourdes Acevedo Beldarrain
12.- Ricardo Crespo Rubio
13.- Maider Lainez Lazcoz
14.- Oscar Valbuena Pascual
15.- Juana Fernandez Refoyo
16.- Oscar Garcia Horrillo
17.- Monica Martinez Notario
18.- Iker Sanz De Gabiña
19.- Eva Alvarez Atanes

20.- Iñaki Ruiz Alonso
21.- Ana Priede Merchan
22.- Bixen Ichaso Gonzalez
23.- Janire Igoa Merino
24.- Maria Blanca Roncal Azanza
25.- Miguel Angel Buen Lacambra

PP

01.- Borja Semper Pascual
02.- Juana De Bengoechea Estrade
03.- Ramon Gomez Ugalde
04.- David Hernandez San Luis
05.- Asuncion Guerra Alonso
06.- Begoña Pereira Anduaga
07.- Manuel Michelena Iguaran
08.- M.^a Angeles Bastos Fernandez
09.- Jose Miguel Ochoteco Aguirre
10.- Cristina Baz Larrañaga
11.- Alejandro Saenz Muriel
12.- Ines Baroja Horrillo
13.- Pello Atxukarro Agirrezabala
14.- Muriel Larrea Laso
15.- Iñigo Manrique Cia
16.- Marta Sanchez Moreno
17.- Jose Manuel Herzog Bustos
18.- M.^a Isabel Ugarte Fernandez
19.- Javier Otero Herrojo
20.- Encarnacion Aramendia Alonso
21.- Begoña Ortega Yustos
22.- Candida Fernandez Ferrera
23.- Manuel Palacio De Ugarte
24.- Juan Carlos Cano Aristoy
25.- M.^a Pilar Elias Zabala

Elkarrekin Podemos

01.- Maria Pilar Zabala Artano
02.- Julen Bollain Urbiet
03.- Jon Hernandez Hidalgo
04.- Amaya Arcocha Pinedo
05.- Iñigo Cabieces Casares
06.- Maria Del Carmen Salido Sierra
07.- Nerea Mendicutte San Miguel
08.- Patricia Rodiño Pijuan
09.- Mónica Monteagudo Casás
10.- David Noé Laborda San Millán
11.- Maria Aranzazu Gonzalez Garcia
12.- Maite Unamuno Martinez
13.- Sükrü Karakus Avsar
14.- María Lourdes Arrieta Ormazabal
15.- Unai Orbegozo Uribesalga
16.- Amaya Perez Bravo
17.- Rosa Ruiz Vidan
18.- José María Sasieta Corta
19.- Patricia Insúa Cerretani
20.- Ángel María García Martin
21.- Antonia Galiot Chups
22.- Jesús López Velasco
23.- Nagore Basurto Escamilla
24.- Jesús Ibáñez Martínez-Conde
25.- Antton Carrera Aguirrebarrena

Ciudadanos

01.- Iñigo Calderon Uriszar-Aldaca
02.- Miren Esker Sanchez Ruiz
03.- Clara Baños Canovas
04.- Aitor Bilbao Rodriguez
05.- Natalia Merino Fernandez
06.- Javier Estevez Videira
07.- Beatriz Olaizola Perez
08.- Ignacio Sanabria Dorronsoro
09.- Maria Sonia Erauskin Lopez
10.- Arman Basurto Barrio
11.- Jose Manuel Gil Vegas

12.- Leire Rodriguez Bravo
13.- Jorge Gomez Mayor
14.- Maleni De La Torre San Vicente
15.- Mayr Alcaine Zapata
16.- Naiara Landa Perez
17.- Itxaso Sanchez Lopez
18.- Francisco Jose Fuentes Bustos
19.- Sebastian Garcia Hernandez
20.- Ana Ramos Pascual
21.- Juan Maria Garrido Fernandez
22.- Jonatan Sanchez Martin
23.- Belen Navarro Moratalla
24.- Mercedes Rodriguez Andres
25.- Miriam Lopez Gonzalez

Pacma-Attakaa

01.- Itziar Gavilan Cárcamo
02.- José Enrique Castellano Pérez
03.- Lorna Valentina Alberdi Saavedra
04.- Andoni Ameztoy Barron
05.- Tanya Rodríguez Moreno
06.- Igor Fernández Angulo
07.- Rosa De Las Heras Rodríguez
08.- Santiago Hernández Herrador
09.- Elena Gibello Fernández
10.- Ian Sossa Remolina
11.- Irene Azkarate López
12.- Alexander Correa Aristizabal
13.- Jael Errazkin Yarnoz
14.- Víctor Alejandro Torre González
15.- Maitane González López
16.- Francisco Mohamedi Al Lal
17.- Helena Sañudo Manso
18.- Félix Fernández Llanillo
19.- Natividad Lobo Sueskun
20.- José Ignacio García Colina
21.- Itziar Sanz Cestau
22.- Miguel Martinez Ruiz
23.- Natalia Alonso Méndez
24.- Álvaro Alejos Cueto
25.- Irati Galdós Mendia

Recortes Cero-Grupo Verde

01.- Jordi Martínez Rigol
02.- Juan Salvador Castañeda Morla
03.- Inmaculada Boo González
04.- M.^a Ángeles Alberdi Bergareche
05.- Roberto Gómez Egido
06.- M.^a Carmen Ripa Suberviola
07.- Gorka Oficialdegui Gómez
08.- M.^a Carmen Devesa García
09.- Gorka Calparsoro Ortiz De Urbina
10.- M.^a Estrella Urrea Areta
11.- Carlos Gómez Idiáquez
12.- Josefa Vilar Bonilla
13.- Emilia Hidalgo Santos
14.- M.^a Josefa Iglesias García
15.- Asier Madruga Rocha
16.- Antxon Joseba Rabella Uría
17.- M.^a Antonia Fernández Arrieta
18.- Juan Pablo Ingunza Zumalde
19.- Eva M.^a Portugués González
20.- Adrián Sánchez Ortuño
21.- M.^a Dolores Ríos Nicuesa
22.- Angel Moreira Colmenero
23.- M.^a Vicenta Ansoleaga Rodríguez
24.- Daniel Reboredo Hernández
25.- Yebel Bartolomé Berciano

Ganemos-Irabazi

01.- Janire Zubizarreta Echegaray
02.- Leire Ibarra Sainz
03.- Ehari Sobrado Esteban
04.- Luis Valladares Hernández

05.- Javier Urquiza Pico
06.- M.^a Esther Patiño Grobas
07.- Ainara San Emeterio Rodríguez
08.- José Manuel García López
09.- Josu Zubizarreta Zárraga
10.- Angel Sobrado Cebadero
11.- María Sera Veth Gutiérrez Rodríguez
12.- Silvia Cabrera Lozano
13.- Trinidad Olivia Fernandez Vinas
14.- Antonio Javier Gómez López
15.- Fernando Sánchez Castellano
16.- Estefanía Branco Moreno
17.- María Yolanda Calvo Colino
18.- Gregorio Aguayo García
19.- Juan Miguélez Silva
20.- Porfirio Gómez Fernández
21.- Soraya Soto Calle
22.- M.^a Begoña Rodríguez Martínez
23.- Mónica López Aguilera
24.- Javier Pozuelo Aceves
25.- Eduardo Gómez González

Partido Familia Y Vida

01.- Eulogio Gardezabal Uriarte
02.- Juan Antonio Perez Foncea Alvarez
03.- Alberto Orlando Machinbarrena
04.- Sonsoles Ortiz De Zarate Fontes
05.- Silvia Patricia Mares Segura
06.- Miguel Angel Balibrea Carceles
07.- Pedro Manuel De Carlos Gandasegui
08.- Alvaro Aterido Maniegas
09.- Marta Fernandez Mercado
10.- Enriqueta Sanchez Montero
11.- Antonio Tórtoles Iglesias
12.- Cecilio Fernandez Lopez
13.- Francisco Javier Palacios Arbelaz
14.- Felisa Sanchez Montero
15.- Maria Luisa Lecanda Arretxe
16.- Jose Luis Alberro Bengoechea
17.- Nicolas Visiers Perez
18.- Ignacio Ramon Fernandez Rey
19.- Maria Lourdes Echeverria Salaverria
20.- Rosa Maria Gonzalez Longo
21.- Sebastian Zubizarreta Zaldúa
22.- Manuel Jose Fernandez Rey
23.- Angel Valdezate Sayalero
24.- M. Mercedes Esperanza Rey Gomez
25.- Maria Pilar Garcia Bañegil

Libertate Nafarra

01.- Ibon Arrieta Arizabal
02.- M.^a Rosario Gainza Lizeaga
03.- Luis Abanda Cruz
04.- M.^a Ines Goicoechea Irurzun
05.- Iñigo Zubeldia Ayerbe
06.- M.^a Isabel Turrillas Mugica
07.- Imanol Etxabe Iturzaeta
08.- Carmen Rodriguez Rial
09.- Mariano Rodrigo Urdangarin
10.- Gloria Arizabal Arruti
11.- Mikel Zabalbeaskoa Koch
12.- Yolanda Monica Silva Rodriguez
13.- Aitor Andonegi Turrillas
14.- Idoia Tolosa Beristain
15.- Jose Ramon Rekalde
16.- Carmen Arco Tramon
17.- Nestor Lertxundi Beñaran
18.- Izaskun Segurola Gabarain
19.- Lartaun Santxitz Zurdo
20.- Leire Saitu Iribar
21.- Fco. Javier Luzuriaga Adame
22.- M.^a Isabel Prieto Plaza
23.- Luis Andonegi Goicoechea
24.- Nora Uria Aramendi
25.- Julen Zinkunegi Tolosa

ehbildu



Irailak 14 | HERNANIN MITINA Maddalen Iriarte eta Larraitx Ugarterekin, 19:30, Plaza Berrin

Irailak 16 | Triki poteoa, 19:30 eta "Denon Herria" antzerkia Usurbilgo Frontoian, 20:30

Irailak 17 | MIRIBILAKO EKITALDI NAZIONALA 17:30, Autobusa jarriko da, izena emateko Aitzagan

Antzerki egunak begibistan

Bueltan datozkigu antzerki zaletuen egunak, izena estreinatuz-Jauzi! eta ekimen berrien bueltan. Muxurbil Antzerki Taldeak eta Euskal Herriko Antzerki Zale Elkartek (EHAZE) kaleko eta aretoko ekitaldiekin osatu dute, irailaren 22tik 24ra luza-tuko den egitaraua. Oraingoan, Aginagara ere "Jauzi!" egingo du zikloak. Eta hasi, txupinazoa jaurtita, herriko antzezle eta musikariekin egingo duten kalejirarekin ekingo diete antzerki egunei.

Irailak 22, osteguna

■ 19:00 Txupinazoa eta kale ekintza musikatua, Txiribogatik abiatuta: herritarrek giro-turiko kalejira musikatua eta geldialdietan antzerki pieza txikien emanaldia. Geldialdiak: Txirristra, Iratxo-Antxeta aurea eta Artzabalen.

Irailak 23, ostirala

■ 19:00 Hitzaldia Sutegiko auditorioan: "Euskal umorea: gorri, berde eta morea". Hizlariak: Idoia Torregarai,



Irailaren 22tik 24ra ospatuko da "Jauzi", antzezlanaz osaturiko zikloa.

UMOREA, AZTERGAI

**Martin eta Xabier
Etxeberria idazle anaiek
eta Idoia Torregarai
"Euskal umorea: gorri,
berde eta morea"
hitzaldia eskainiko dute
irailaren 23an Sutegin**

Martin eta Xabier Etxeberria.

■ Ondoren, Tentexut (zizka mizka artixtikoa).

■ 22:00 "Zerura eroria" antzezlanaz Sutegiko auditorioan, Anodino Teatroaren eskutik.

Testua: Mikel Fernandino.

Zuzendaritza: Pablo Ibarluzea. Antzezleak: Florentino Badiola, Aiora Sedano, Aitor Fernandino.

Zehaztasunak: "Zerbait al dago hil ostean? Zerbait bada-go, nora goaz? Gora? Behera? Bizitakoaren arabera erabakiko al da norabidea? Ezinbestekoa da bizitza produktiboa eramatea behin betiko atsedena lortzeko? Nola deitzen dira hilda zaudenean dituzun bizipenak? Hildakoen bizipenak? Bizi penak? Hil penak? Bizitzaldi ezgauza bezain zozo baten ondoren, Armandok zeruan atsedena

hartzea besterik ez zuen nahi. Baina kapitalismoaren atzaparkadak eta krisi ekonomikoa zeruraino iritsi dira, eta ez zuen espero bere produktibitate eskasak atsedena hartzea galaraziko zionik. Sartzetik izango al du? Eta zuk, etxekolan guztiak eginda dituzu arimen mundura bidaiatzeko?"

Sarrerak: Egunean bertan. 5 euro. Ikasle eta langabetuek 3 euro.

Irailak 24, larunbata

■ 11:00 Haurrentzako zirku tailerra Aginagako Eliza Zaharrean, Eskola Txikiaren Eguna-ren baitan.

■ 18:00 Klowen ikastaroa helduentzat, Sutegiko auditorioan.

Prezioa: 5 euro; ikasle eta langabetuek 3 euro.

Izen ematea: Egunean bertan.

■ 21:00 Tentexut (Zizka Mizka Artixtikoa) Sutegiko erakustaretoan.

■ 22:00 "Putinen Guardasola" antzezlanaz (komedia) Sutegiko auditorioan, Xentimorik Gabe taldearen eskutik.

Batuko gaituen ereserkiaren bila

'Xentimorik gabe' eta 'Koka Kola eta barea' antzezlanen ondoren, Ramon Agirrek eta Inazio Tolosak gorpuzten dituzten Ray eta Nik pertsonaiak Euskal Ereserki Berria sortzeko enkargua jaso dute. Hala, euren musika tresnak hartu eta munduan zehar bidaiatzeari ekingo diote, Burundi, Mexiko edota Tiroleko esperientziak ezagutu eta Euskal Ereserki Berria osatzeko ideiak bildu asmoz.



Ray eta Nik, "Putinen Guardasola" antzezlanaren protagonistak.

Eguna: Irailak 24 larunbata

■ Sinopsia: "Lehendakaria kezkatuta dago. "Euskaldun

guztiok batuko gaituen himnoa behar dugu" aitortu du.

Baina nork egingo du? Bilera luze baten ondoren, adosta-

sunak lortu dute: Ray eta Nik izango dira euskal ereserkiaren egile".

■ Irailak 24 larunbata.

■ Ordua: 22:00etan.

■ Tokia: Sutegin.

■ Taldea: Xentimorik Gabe taldea.


■ Aktoreak: Ramon Agirre eta Inazio Tolosa.

■ Sarrerak: Egunean bertan. 5 euro. Ikasle eta langabetuek 3 euro.

■ Antolatzaileak: Muxurbil eta EHAZE (Euskal Herriko Antzerki Zale Elkartea).

■ Laguntzailea: Usurbilgo Udala.





[Klik! batean](#)

Hutsik, leihoak zabalik

Gipuzkoako erreka amurrainez birpopulatzeko, Foru Aldundiak arrain haztegia eraiki zuen Zetaolaren goialdean. Erroizpeko haztegiaren arrain-asek bere horretan jarraitzen dute. Amurrainen arrastorik ez da aspaldian. Argazkia: Ion Markel

Kontxako giza-katean, inoiz baino jende gehiago



DOAKO IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABETUENTZAT



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

Astelehenetik ostegunera
18:00etatik 21:00etara



HOBETUZ

Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua
Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa

ESKaintza irekiko eta profesionaltasun-ziurtagiriei dagozkien ikastaroak

MANTENIMENDUA / ENERGIA

- Bero, hotz eta aire girotu instalakuntzak
- Energia berriztagarriak
- Mikrokogenerazioa
- Hoditerien soldadura eta lotura
- Termografia

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Catia V5-V6 / CAE
- CNC Fanuc eta Heidenhain
- Cam Gibbs
- 3D inprimagailuak
- AUTOCAD / SOLID EDGE
- Soldadura elektrikoa

ADMINISTRAZIOA

- Aplikazio informatikoak
- Bezeroarekiko arreta eta salmenta
- Kontratazioko berrikuntzak
- Google Apps

ELEKTRIZITATEA / ELEKTRONIKA

- SIEMENS S7 + TIA PORTAL oinarritzkoa eta aurreratua
- Oinarritzko elektrizitatea



Izena emateko edo informazio gehiago
nahi izanez gero: 943 36 46 00



Etarte bidea, 9 (Zubieta atzoa)
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

CIPF USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus
formacion@lhusurbil.eus

Santueneko jaiak hemen dira

Ostiral honetan piztuko dute jaien hasierako txupinazoa. Igandera bitarte, ekitaldi bete asteburu prestatu du Santueneko Jai Batzordeak.

Irailak 16 ostirala

17:00 Txupinazoa txosna aurrean eta txokolatada.

Ondoren, globo gerra.

18:30 Buruhandiak eta Batukada.

19:00 Sardina jana.

23:30 Kontzertuak: Zaparra, Los Zopilotes Txirriaos eta Gaitzerdi Erromeria.



Ostiralean Zaparra eta Los Zopilotes Txirriaos (argazkian) taldeen kontzertuen ondoren, erromeria Gaitzerdi taldearekin. Argazkia: Eider Iturriaga.

Irailak 17 larunbata

■ 11:00 Haur jolasak eta pintura lehiaketa.

■ 13:00 Buruhandiak.

■ 14:00 Haur bazkaria. (Norberak bere bazkaria ekarri, eta edariak eta postrea bertan banatuko dira).

■ 16:00 Mus txapelketa. (15:30-16:00 izen ematea).

■ 16:00 Puzgarriak.

■ 17:30 Txokolatada.

■ 19:00 Buruhandiak.

■ 20:30 Kantu Afaria.

■ 00:00 Dantzaldia, DJ Aros-ek girotua.

Irailak 18 igandea

■ 11:00 Toka txapelketa.

■ 12:00 Hamaiketako txosnan.

■ 14:00 Herri bazkaria.

■ 17:00 Gorritiren showa.

■ Ondoren, buruhandiak.

■ 19:30 Piper dastaketa.

■ 21:00 Jaien amaierako traka.

Izen ematea,

Dantza Taldean

Bi bide dituzue inskripzioa bideratzeko: orbeldi.udt@gmail.com helbidera emaila idatzita. Edo ostegun eta ostiral honetan 17:30-19:30 artean Oiardo Kiroldegian Orbeldik duen egoitzara gerturatuta. Haurren Dantza Taldearen klaseen ordutegia zehazteko, bilera egingo dute irailaren 23an, 18:30etan Kiroldegian. Helduen eskaintzan, erromeria dantzak, euskal dantzetan oinarritutako koreografiak eta euskal dantza tradizionalak dituzue aukeran. Urriaren 3an abiatuko dute ikasturte berria.

Einean Guraso

Eskola

Ostegun honetan, irailaren 15ean itxiko da guraso eskolak antolatutako ikastaroetako izen ematea. Laboreak, yoga, pintura, eskulanak, masajea, sabel dantza/hip hop saioak antolatu dituzte.

Helduen

Hezkuntza

Iraunkorra

18 urtetik gorako herritarrei zuzendutako doako hezkuntza eskaintzan matrikulatzeko aukera duzue irailaren 16ra arte; araututako eta arautu gabeko ikastaroetan, atzerriarrentzako gaztelania ikastaroan eta Zikloetako Sarbidean. Informazio gehiago: 943 376 443 / epalasarte.es info@epalasarte.es

Aginagako Eskola Txikiaren Eguna

Guraso Elkarteak prest du irailaren 24an ospatuko duten hiru egunaren edizioako egitaraua:

Irailak 24, larunbata

■ 11:00 Zirku eta zientzia tailerra.

■ 14:00 Bazkaria norberak lekarkeenarekin.

■ 16:30 "Sardina frexxue" emanaldia Eidaberen eskutik.

■ 18:00 Erokonomia taldearekin dantza saioa.

Antolatzailea: Aginagako Eskola Txiki Guraso Elkarteak.



Egunpasa ederra prestatu dute irailaren 24rako.

ELORZA

O BRAK ETA
ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Denboraldi ederra osatzen ari dira usurbildar arraunlariak



Beste behin ere, Sarai Lizaso eta San Juanentzat izan zen Kontxako Bandera.

Usurbildar bat dugu Kontxako Banderako txapelduna; emakumezkoen lehia San Juanek irabazi zuen Donostian. Talde kideetako bat dugu Sarai Lizaso Mitxelena. Bosgarren postuan sailkatu zen bestalde Zarautz-Getaria eta talde horretan parte hartu duen Nagore Arruti Urkiola usurbildarra.

Taldetik ziotenez, “askotan gertatzen den bezala, kontsolazio txandako lehenengoak ohorezko txandako azkenak

KONTXAKO BANDERA

Sarai Lizaso eta San Juan nagusitu ziren. Nagore Arruti eta bere taldea Zarautz-Getaria bosgarren izan ziren. Mutiletan, Alex Udabe eta Hondarribia bigarren izan ziren

baino denbora hobea egin du. Beraz ezin izan diogu 4. postuari eutsi. Baina gaur garrantzitsua ohorezko txandadan egotea zen eta hor izan

dira gure neskak. Bejondeizuela neskak! Egun handia G.A.E.rentzat. Aupa Getaria!”.

Alex Udabe, garaipenetik gertu

Gizonezkoetan Hondarribia eta Alex Udabe Pagola garaipenetik gertu izan dira aurtan. Kontxako txapeldunorde ditugu, Bermeok irabazi baitu bandera. “Inoiz baino harroago gaude, gora Hondarribia!”, adierazi dute taldetik. Zorionak Sarai, Nagore eta Alex!

Oiاردoko kirol eskaintza

Oiardo Kiroldegia 2016-17 ikasturterako eskaintza zabal prestatu du.

Aretoko jardueren artean jumping, body balance, pilates, zumba, spinning, 3.adina, aerobik.

Eta uretako jarduerak; haurtxoentzako saioak, ur ludoteka, Igeriketa Eskola, uretan moldatzea 3-8 urte artekoentzat, Igeriketa Gidatua, haurdunen igeriketa, Igeri Hastapena, hobekuntza, triatloiko igeriketa...

Ikastaro guztiok ordutegi ezberdinetan eskainiko dituzte. Prezioen eta gainerako argibideen berri, Kiroldegian bertan edo 943 372 498 telefono zenbakian jaso dezakezue.



Aretoko jardueren artean jumping, body balance, pilates, zumba, spinning, 3.adina, aerobik.

Baxurde Krossean izen ematea ixtear

Ostiral honetan duzue, igandean, irailaren 18an ospatuko den 9. Baxurde Krosserako izen emateko azken eguna. Oiardo Kiroldegian bideratu dezakezue inskripzioa edo bestela, kirolprobak.com atarian sartuta.

Ordaindu beharrekoa:

10 euro txip horiarekin, 12 euro txip zuriarekin. Ez ahaztu, 300 lasterkarientzako lekua dago Baxurde Txiki Usurbilgo Tria-



Oiardo Kiroldegian egin daiteke inskripzioa, edota kirolprobak.com webgunean.

toi Taldeak antolaturiko proba herrikoian.

Bi distantzia dituzue aukeran; 10,75 edo 5,2 kilome-

trokoa. Baxurde Kross Txikia ere ospatuko da.

Irteera, goizeko 10:30ean

Guztia igande goizeko 10:30ean frontoitik abiatuta. Amaieran lehen hiru gizon-emakumeentzako sariak izango dira. Parte hartzaile guztientzat oparia eta hamai-ketakoa. Herriko jatetxe eta saltokien eskutik ere opari ezberdinak zozketatuko dira parte hartzaileen artean.

Amador Granados Alkorta: “Aitarekin akordatu nintzen”

Joan bezperan aitortu zigun. Abiadura lasterketan, taldekakoan, domina eskuratzeko aukera asko zituzten. Baina lasterketak bizikleta gainean irabazten dira, ez mikrofonoaren aurrean. Askok kostata izan bazen ere, brontzezko domina eskuratu zuten Amadorrek eta Alfonso Cabello eta Eduardo Santas taldekideek. Aitari esker egin zen txirrindularitza zale, eta hari eskaini dio Rioko balentria.



Brontzezko domina eskuratu du Rioko Paralinpiar Jokoetan.

NOAUA! Zer etorri zitzaizun burura podiumera igo zinen unean?

Amador Granados Alkorta. Aitarekin akordatu nintzen. Oso gogoan izan nuen egun osoan. Txapela ere, bere omenez ipini nuen.

Garaipen honen atzean zer dago?

Urte luzez egindako lanaren emaitza da domina. Jarraikortasun handia eskatzen du kirol honek, eta ekinaren ekinez lortu dut, arrazoi askorengatik hain konplikatu den garaipen hau.

Nori eskaini nahi diozu garai-pena?

Babestu nauten pertsona guztiei: Fabiola nire bikoteari, amari, familiari, entrenatzaileei, eta lehen urratsak eman nituenean lagundu ninduten horiei, dagoeneko gure artean ez direnei bereziki.

Eta aitari, noski. Kirol hau sarrarazi zidan barruraino, eta kirol honek dituen balio guztiak bide batez: konstantzia, oztupoak gainditzea, ahalegin betean zaudenean sufitzen ikastea, helmugak finkatu eta lortzea. Oso gogoan ditut irakaspen hauek denak.

Ostiral honetan, errepideko lasterketan

Paralinpiar Jokoetan hirugarren eta azken lasterketa izango du Amador Granadosek. Ostiral honetan, hilak 16, errepideko lasterketan partehartuko du. 21:30ean hasiko da (*Brasilgo ordua). Aurreko astean aipatu zigunez, taldekideak laguntzea izango da Amadorrek errepidekoan izango duen zeregina.

Zorion agur ugari

Irailaren 11n, brontzezko domina irabazi eta berehala, esker oneko mezu piloa jaso zuen sare sozialetan.

**Zubietaren debuta
Endika Abril
Txapelketan**

Lehen neurketa etxean jokatuko dute gainera zubietarrek. Igande goizeko 11:00etan, Endika Abril Txapelketaren baitan, Senpere-Zubieta neurketa errebote plazan.

**Eskubaloia
Kiroldegian**

Irailak 17, larunbata

■ 18:00 Senior neskak, Zilarrezko Ohorezko Maila: Usurbil K.E.-C.B. Salud Tenerife

**Euskal Selektzioarekin
Irailak 18, igandea**

■ 11:30 Infantil mutilen euskal selektzioaren entrenamendu saioa, Arrasateko Iturripeko Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Eneko Furundarena Maiz eta Julen Lejardi Araolaza deitu dituzte hitzordura.

■ 15:30 Emakumezko jubenilen euskal selektzioaren entrenamendu saioa, Arrasateko Iturripeko Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Ane Irazabal, Estitxu Berasategi Eizagirre eta Ane Retolaza Matxinandiarrena deitu dituzte hitzordura.

■ 17:30 Jubenil mutilen euskal selektzioaren entrenamendu saioa, Arrasateko Iturripeko Kiroldegian: Usurbil K.E.-ko Imanol Furundarena Maiz deitu dute hitzordura.

**Kadete mutilen
futbol taldea
osatzeko deialdia**

Kadete mutilen taldea osatzeko jokalaririk bila dabil. Izen emateko epea zabalik egongo da irailaren 15era arte. “Apuntatu nahi izanez gero, Haranera gerturatu daitezke”, ohartarazi dute Usurbil F.T.-tik.

Usurbil Futbol Taldeak 40 urte bete ditu

“Eskerrik asko urteotan parte hartu, lan egin eta Usurbil F.T.ren bizi izateagatik! Gora U.F.T.!” mezu honekin gogorarazi nahi izan zuten futbol taldeen bilgunetik, irailaren 9an 40 urteko bidea osatu dutela. Usurbil Cup txapelketa betean dira asteotan, denboraldiari ere ekitear dira futbol taldeak. Baina urtemuga hau ospatzeko tarte ere hartzeak dira datozen hilabeteotan. “Ez pentsa ospatuko ez dugunik! Denboraldi honetan zehar ekintza eta ekitaldi gehiago ere izango ditugu.



Usurbil Cup txapelketan burubelarri ari dira egunotan.

Aurrerantzean informazio gehiago izango duzue”, iragarri dute Usurbil F.T.-tik. Bestalde, kadete mutilen taldea osatze-

ko jokalaririk bila dabil Usurbil F.T. Interesdunek irailaren 15a baino lehen izena eman behar dute Haranen.

ETXEBIZITZA

Salgai

Duplexa Kalezarren - Aizparrene etxea, 176 m² (120 eta 56) eta garajea 50m² eta terraza 9m². Ilogailua, fatxada berriua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoalde-
ra. 605 707 642.

78m² pisua Atxegaldan. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Ilogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Prezio berria: 138.000 euro. Ramón 615149900

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokalde-
ra, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Etxebizitza Santu Enea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Prezioa 550 euro. Ramón 615149900.

Etxe bat Etxealdian. 3 logela, sukalde-jangela, 2 balkoi eta dena kanpora. 626 867 493.

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Diesel. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje itxia alokatzen dut, 20 metro koadro, Kale Nagusia 22-an. 618860270

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 48.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsua. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertzia-

la salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bat nabil. Moto-rra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Emakume bat behar da astean hiru egunetan: bazkaria eta garbitasuna egiteko. Tel. 609 403 081.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketara. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak



Larunbat honetan 50 urte ezkondu zinatela ospatzen dugu. **Mila zorion eta ondo pasa eguna!**



Zorionak Nora!

Abuztuan 8 urte bete zenuen eta askotan ospatu behar dugu! Muxu asko!



Zorionak Izaro!

Irailaren 18an 6 urte beteko dituzu. Ondo ondo ospatu eta muxu goxo bat zuretzat!

OHARRA: Irailaren 23an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: irailak 19 astelehena. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarik egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatebeken batean harraskako garbiketarik egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketetan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan

edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantxatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoi-tzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

BESTELAKOAK

Puntuzko txaketa beltza galdutuen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-gora haurrentzako botika eta higienarako produktuz betetako laranja koloreko nezaser edo botikin bat entregatu dute. Galdutuenak Udaltzaingoa galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Egoera onean dagoen flauta trabesera bat erosiko nuke, edo urtebetez alokatu. 645 737 925.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman

nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostia elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro popular bat galdutua da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztailako bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparitu nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikro-txipa jarrita ditu. 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloa. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 22 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 23 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 24 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 26 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 27 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Irailak 22 - urriak 02

Osteguna 29 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 30 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 01 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 02 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ URRUTIA YURREBASO, MAITANE Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani 943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda iraila

16 ostirala

■ Santueneko jaiak. Ikus 21. or.

17 larunbata

- Santueneko jaiak. Ikus 21. or.
- 09:00 Txaldataxurreko lubakietara frontoitik.
- 13:00 Zigortu eta gudarien omenezko "oroitzapen ekitaldia" Askatasuna plazan.
- Bisita gidatua: "Harria hitz". 16:30ean frontoian.

18 igandea

- Santueneko jaiak. Ikus 21. or.
- 9. Baxurde Krossa. 10:30, frontoitik.
- Endika Abril Errebote Txapelketa. 11:00etan Senpere-Zubieta.

Herri ondarea ezagutzeko hitzordua

Harria hitz izeneko bisita gidatua antolatu du Usurbilgo Udalak, larunbat honetarako, irailaren 17rako, 16:30etan frontoitik abiatuta. Herri erdiguneko sorkuntza-ondarea hobekiago ezagutzeko aukera izango da.

Gipuzkoako artista garaikideek nazioarteko ospe eta izena lortu zuten: Txillida, Oteiza, Mendiburu, Basterretxea... "Mundu mailan zabaltzen ziren ideiei esker, migranteak ziren ideiei esker, eta arte-sorkuntzaren bidez gipuzkoar eta euskotar izateko modu bat asmatu eta zabaldu zuten. Usurbilen, Udarregi bertsolariaren omenez, Mendiburuk eginiko eskultura hizpide, Rikardo Arregik idatzitako artikulua bikain laburtzen du hori", halaxe diote bisita gidatuaren antolatzaileek. "Mendibururen eskultura,



Remigio Mendiburu eta Jorge Oteiza, 1966an Usurbilen. Larunbat honetan, artista garaikideen lanak hobeto ezagutzeko aukera izango dugu.

Usurbilgo plaza eta Zumetaren murala bisitatuko ditugu hala sorkuntza-ondarearen arteko harremana aztertuz nola kultura-kontzeptuen hedapena azalduz".

Aurretik eman behar da izena

Bisita gidatuan parte hartzeko, aurrez eman behar da izena: 605 729 802 edo info@ereiten.com. Gehienez 30 laguntzako tokia egongo da.

KzGunea, iraileko eskaintza

- Irailak 19-30, 09:00-11:00: "Ofimatika tresnak-Libre Office".
- Urriak 3-14, 16:00-18:00: "Komunikatu zaitez Sare Sozialen bitartez".
- Urriak 17-28, 16:00-18:00: "Ofimatika tresnak-Libre Office".
- Informazio gehiagorako: 943 023 684 tutor.usurbil@kzgunea.net
Kale Nagusia, 37 (irailean 09:00-13:00 artean zabalik).

Kantu Taldearen entseguak hastera doaz

Astearteroko entseguak irailaren 20an ekingo diete. Ohi bezala, 18:30-19:30 artean Udarregi Ikastolako kantu gelan bilduko dira. Hurrengo kantu-jira berriz, irailaren 24an 19:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta.



Datozenak

Joseba Tapia, Rukula eta Zozo, Gaztetxearen urtebetetzean

Usurbilgo Gaztetxeak lau urte bete ditu eta ospatzera doaz, irailaren 23rako antolatu duten kontzertu gau berezi baten bueltan. Joseba Tapia eta Besamotzak, Rukula eta Zozo gonbidatu dituzte urteurren kontzertura. 23:00etan hasiko da kontzertu gaua. Sarrerak 5 eurotan eskuratu ahaliko dira.

Urriaren 1ean Carod-Roviraren bisita

Nafartarrak taldearen eskutik etorriko da gure artera Josep-Lluís Carod-Rovira, ERCKo buruzagi ohia. Urriaren 1ean, goizeko 10:00etan Sutegin. Hitzaldia eskainiko du, eta, "ondoren, euskal bidearen inguruko mahai ingurua izango da".

Literatur solasaldia

Urriaren 19an asteazkena, 19:00etan, Katixa Agirreren Atertu arte itxaron liburua izango dute aztergai Sutegin. Yolanda Arrieta Malaxetxebarria ari tuko da gidari lanetan. "Liburuak jada eskuragarri daude Liburutegian solasaldian parte hartzeko interesa duen ororentzat. Anima zaitez!", Sutegitik aditzera eman dutenez.

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitaratekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Zenta Ortopediakoekin hitz egin dugu, nortzuk diren eta haien lan jardura azaldu diezaguten.

Egia esan, ez zaudete Usurbilen... Zergatik diozue "ortopedia berria Usurbilen"?

Inax: Bai, egia da, ez gaude Usurbilen. Errekalde auzoan kokatua dagoen ortopedia berria gara. Zuen herritik oso gertu gaude, oso ondo komunikatua dago. Lerrootatik geure burua Aginagan, Usurbilen eta Zubietan ezagutzera eman nahi dugu, bertako bizilagunek euren esanetara gaudela jakin dezaten eta gure zerbitzuak eskaintzeko.

Zer da Zenta? Zehazki zer eskaintzen duzue?

Inax: Enpresa gazte eta berria da. Bi urteko ibilbidea duen bost profesionalen osaturiko lan taldea. Helduei eta desgaitasunen bat duten pertsonen zerbitzu osoa eskaintzen die. Ortopedia berria Usurbildik gertu, Donostiako Errekalde auzoan kokatua dago, beilatoki ondoan. 400 metro karratuko erakusketa eta doako aparkalekua ditu. Pertsona helduentzako eta desgaitasunen bat dutenentzako mota guztietako laguntzarako produktuak saldu eta alokatzen ditugu. Gure eskaintza oso zabala da: ohe artikulatuak, gurpildun aulki elektrikoak eta eskuzkoak, moto elektrikoak, garabiak, "scooterrak"... Azken batean, pertsona guztion bizi kalitatean laguntzen duten produktuak ditugu.

Zertan da diru-laguntzen gaia?

Inax: Zorionez, Foru Aldundiaren eta Osakidetzaaren nahiko diru-laguntza daude, batzuetan jendeak existitzen direnik ere jakin ez arren. Laguntza produktuak erabili edo eskuratzeko guk geronek tramitatzen ditugu diru-laguntzak. Gai honi buruzko doako aholkularitza eskaintzen diogu herrialde osoari; positiboki baloratzen den jardura da, batzuetan interesdunak ez baitaki zer pauso eman behar diren. Ictus edo Alzheimer kasuetan pertsona bakoitzak dituen beharrak baloratzen ditugu...



Orduan, zuena ez da ohiko ortopedia ezta?

Inax: Zerbitzu osoa eskaintzen dugu, zabala; etxez etxeko laguntza, etxeko irisgarritasun eta egokitze lanak...

Zenta taldea zenbat kidek osatzen dute?

5 espezialistek osatzen dute Zenta Ortopedia. Elenak, terapia okupazionalak; Jacintok, laguntza teknikoetan teknikari espezializatuak; Aracelik, ortoprotesiko teknikariak; Inaxek, koordinatzaileak; eta Anak, zahartze gaietako orientatzaileak.

Zer motatako ekimenak antolatzen dituzue?

Gure publikoa pertsona helduek eta desgaitasunen bat dutenek osatzen dute, eta haiei zuzenduak daude gure egoitzan antolatzen ditugun ekintzak. Antolatu dugun azkena, eskuzko gurpildun aulkien motorizazio sistemen ingurukoa izan da. Bestalde, pertsona helduen eta desgaitasunen bat dutenen mugimendu asoziatiboa garrantzitsua da guretzat, eta horregatik baita, haiei ahalik eta gehien eta modu zabalenean lagundu eta aholkatzeko lankidetzarako hitzarmenak ditugu, hirugarren sektoreko entitate eta elkarteekin; Nagusilan, Afagi, Aslemegi...



Etxez etxeko zerbitzu osoa eta zure ongizatera egokitua



Eskaintzen duguna:

Ortopedia: laguntza produktuen salmenta eta alokairua, etxez etxeko zerbitzu teknikoak.

Etxez etxeko laguntza: zaintzailea, janaria, eta zerbitzuak etxean bertan.

Etxeko eta irisgarritasuna hobetzeko egokitze lanak. 

Zentro soziosanitarioak materialez hornitzea.

Laguntzen izapidetzea/hitzarmena Osakidetzarekin

Ekintza plan pertsonalizatua eskaini nahi dizugu! Zuzeneko arreta!

APARKALEKUA
DOAN!



Agila Eraikina, Errekalde 59
Donostia

Tlf 943 105 205

www.zenta.es

Jarrai gaitzazu Facebook-en





Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi.euskalnet.net

• ERAIKUNTZAK • OBRAK
• BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefonia
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Borda Beri Kalea, 2 3° A
20170 Usurbil. Apartado Correos, N° 26

ELORZA
O BRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
jon.elorza@hotmail.com

SAN ESTEBAN 5, BAXUA

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

- gremioen koordinaketa
- berritze lanak
- sukaldeak
- komunak
- mota guztietako obrak

errekatziki 7, USURBIL

943 530 337- 607 119 313



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA



ESKAIOLA PLADUR

Joxean Elorza -USURBIL
699426042



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

JOSEBA ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Rafa
iturgindegia

• ITURGIN LAN OROKORRAK • DUTXAKO HANPARAK
• KONFINATZAZKO GREHIOAK • KOKUHEKO ALIZARIARIK

Bordaberri kalea 1, 1. beheka • 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza • segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



ventamix
LUMON

943 59 32 58
600 80 30 05

Sanatzaile Ofiziala

info@ventamix.com • Ugaldea polig. 18, USURBIL